



JOLAS eta JOSTAILU EZ-SEXISTEN GIDA



Jolasa ikasteko egoera naturala da, jolas desberdinek zenbait gaitasunen garapena errazten dute, eta jostailuak jolasa aberasteko baliabideak dira. Jostailuek izugarriko garrantzia dute haurren hezkuntza prozesuan. Ez dira soilik ondo pasatzeko eta entretenitzeko. Jolasa dela medio, umearen garapen osoa eta euren garapen pertsonala hobetzeko gaitasun positiboak bereganatuko dituzte: gaitasunen, irudimen eta fantasiaren sustapena, ulermen teknikoak, inguruarekin harremana, norberaren balorazioa, pertsonalitatearen indartze edo sendotasuna, auto-ezagutza...

Haurtzaroan, jolasa da ezagutzarako, ikasketarako eta adierazpenerako bide nagusia. Jolasekin, hurbileneko esperientziak islatzen dituzte eta, izango duten nortasuna eratzten duten egoera desberdinen aurreko portaera, jarrera eta gaitasunak ikasten dituzte. Horien bitartez jostailuek indartzen dituzten gaitasun eta baloreak bereganatzen dituzte.


Jolasaren bidez bizi diren jendartearen arauak eta portaerak ikasten dituzte. Jostailuak berez, ez dira onak edo txarrak, hauen egokitasuna ematen diogun erabileraren arabera izango da. Jolas eta jostailu desberdinak erabiltzen berezko generoari dagozkion ezaugarriak ezagutuko dituzte neskek zein mutilak. Ondorioz generoaren arabera erabilerak, estereotipo sexistak barneratu, birproduzitu eta iraunaraztearen funtzioa.

Hau dela eta, heziketarako tresna garrantzitsua den momentutik, ezinbestekoa da eskaintzen, onartzen edo indartzen ari garen ereduaren analisi kritiko bat egitea.

JOLAS ETA JOSTAILU SEXISTAK	JOLAS ETA JOSTAILU EZ SEXISTAK
Neskek edo mutilak jolasteko aukera ematen ez dutenak.	Sexu gainetik jolastu ahal izateko aukera ematen dutenak.
Gizona edo emakumea izatea "irakasten" dutenak.	Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen ez dituztenak (ez indartzeko). Pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunean garatzeko laguntzen dutenak.
Genero desberdintasunak markatzen dituztenak.	Genero estereotipoei erantzuten ez dietenak. Generoak garatzen dituen gaitasunak baino askoz gehiago lantzeko aukera ematen dutenak.
Heldu eta umeen arteko harremana, modu itxian, generoen arabera jolasetan bideratzen dituztenak.	Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematen dutenak.
Harremanak sexuaren arabera markatzen dituztenak.	Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituztenak (balore positiboak)
Egungo genero zatiketa birproduzitzen dutenak.	Bizitzarako eredu berri bat, parekidetasunean oinarritua, bultzatzen dutenak.

EDOZEIN JOSTAILU EROSI AURRETIK, ZERA GALDETU GURE BURUEI

- Jostailu hau umeak duen adinerako aproposa da? Jostailu honekin gustura egongo da?
- Adinaren arabera gomendioak ditu?
- Behin eta berriro jolas daiteke berarekin? Interesa piztuko dio? Minutu batzuetarako edo orduetan jolasteko modukoa da?
- Jostailu honekin umeak bere lagunekin jolastu ahal izango du?
- Errez apurtzen da? Luzaroan iraungo du?
- Jostailuaren bidez, umeak irudimena landuko du?
- Erabilera anitzeko jostailua da?
- Umeari estereotipo ez sexistak ez errepikatzen lagunduko dio?
- Jostailu hau nire semea edo alabarekin konpartituko dut?
- Kultur-aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten duen jostailua da?
- Arriskurik suposatzen du?
- Tebistan iragartzen dute? Zer nolako iragarkia da? Estereotiputako iragarkia da? Iragarritakoa betetzen du?
- Erabilpenerako gomendioak ditu? Nolakoak dira gomendio horiek?



JOSTAILUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Umearen adinerako eta gaitasunerako jostailu egokiak.

Jostailu bat behar baino lehenago ematea kaltegarria da, baita behar baino beranduago ematea ere. Jostailua umearen gaitasun sentsomotore, kognitibo, afektibo eta sozialetarako egokia izan behar da. Jostailu on bat umearen beharrak asetzen dituena da: miatu, asmatu, sortu, gaitasun fisikoak, irudimena edo imitazioa hedatu, elkarbanatu, komunikatu eta adierazi, harremandu...

Umearen ekintza, irudimena eta gaitasuna sustatzen duten jostailuak.

Jostailu perfektuegia protagonista bihurtzen da, pasibitatea bultzatzen du eta sormena ito egiten du. Jostailuak parte hartzeko, erronkarako eta aurkikuntzarako aukera eman behar du eta zera estimulatu: adimen-gaitasunak, abileziak eta emozio eta fantasiaren adierazpena.

Jostailu ezberdinak konbinatu:

> Egituraturik ez dauden jolas-materialak, jostailu sinbolikoak, errepresentaziozkoak eta jostailu didaktikoak.

Erabilgarria da umei egituraketa maila gutxiko jolas-materialak eskaintzea (jolas ezberdinetarako erabil daitezkeenak). Hauek irudimena lantzeko eta detaileak osatzeko aukera ematen dute (kutxa bat mahai baten bihur daiteke, edota itsasontzi bat...). Erabilera anitzeko jolasak, aukera ezberdinak aztertzean, umeak bere aurkikuntzak egingo baititu. Garrantzitsua da nola funtziona dezaken erakustea, baina ez gehiegi.

> Jostailu hauskaitzak eta iraunkorrak / aldizkakoak, galkorragoak.

Garrantzitsua da denbora batez tratu gogorra jasan ditzaken jostailuak izatea. Haren erresistentziak, bere munduaren zati bihurtu den jostailua apurtzen denean, umeek sufritzea eragozten du. Hala ere, ona da aldizkako jostailuak izatea ere, momentuko beharrari erantzuteko.

Jendarte elkarrekintza eta, batez ere, elkarrekintza kooperatiboa sustatuko dutenak, bakarrik jolasteko aukera emango dietenekin konbinatu.

Jolasa komunikazio tresna garrantzitsua da, beraz, beste pertsonekin elkarrekintza sustatuko dutenak positiboak izango dira umeen garapenerako. Bakarkako jolasak ere garrantzia dute, beste testuinguru batean adierazi ezin dituen fantasiak agertzeko aukera ematen diolako.



Jostailu anitzak sexu bietan, rol sexistak tipifikatzen ez dituztenak, eta jarrera bortitzak bultzatzen ez dituztenak (Jostailu belikoak).

Helduok, gehienetan, neska eta mutilen jolasak ezberdindu egiten ditugu, sexu bien arteko mugak eraikitzen. Garrantzitsua da umeei era askotako jostailuak izatea (panpinak mutikoentzat eta mekanoak neskeentzat), bakoitzak garapen prozesu ezberdinak eragiten dituelako helduaren bitartean beharrezkoak izango direnak, generotik at.

Badaude zenbait ikerketa honakoa bermatzen dutena: neskatoak diziplinatuagoak direla, jolas lasaiagoak aukeratzen dutela, ekintza sedentarioagoak, antzeppen jolasak, imitaziozkoak, margotzea aukeratzen dutela, eta balentria jolasekiko interes gutxi erakusten dutela. Horrela, mutikoek gehiagotan erakusten dute haserrealdia, jolas aktibo eta kementsuak aukeratzen dituzte, trebetasuna eta muskulu-ahulezia, lehia eta antolakuntza inplikatzen dutenak. Besteak erasotzeko joera handiagoa erakusten dute edo konpartitzeari uko egiten diote.

Gure esku dago erabiltzen dituzten edo gure seme-alabekin erabiltzen ditugun jostailuak aukeratzea, eta erabilera egokia ematea, eredu hauekin apurtzeko, bestela pertsonaren garapen osoan mugak jarri ditzakegu. Ez dugu ahaztu behar:

- > Jostailuak ez daukatela sexurik, ez dira maskulinoak ezta femeninoak ere.
- > Helduen jarrerak eta portaerak, identifikaziorako eredu diren heinean, umeengan duten eragina.



Jostailu belikoei dagokionez, bai neskatoek zein mutikoek esperimendatu eta ikusten dituzten errealitateak errepikatzen dituzte. Gure jardura jostailu bortitzak ez bultzatzearena izan behar da, berez indarkeria adierazpena sustatzen duten jostailuak (pistolak, ezpatak...) ematea ekidinez, baina malguak izan behar gara jostailu beliko libreen (makila bat hartu eta pistola dela irudikatzea...) aurrean, agresibitatea era sinbolikoan "botatzea" ahalbidetzen baitute, errealitateak eta bere nahiak bat egiten ez dutenean agertzen den agresibitatea. Komunikazioa, batasuna eta konfiantza sustatzen duten jolasak bultzatu behar ditugu, oinarrian norbere burua onartzea, laguntzea eta konpartitzea izango dutelarik.

- Interesgarriak, erakargarriak eta atseginak diren jostailuak.
- Jostailu Ziurrak



Egin behar ditugu galderak: umeei erretsi ahal dituzten zatiak dauzka? Apurtzen bada, ezpalki edo plastikozko zati puntazorrotzik gera daitezke? Badauka punta arriskutsurik? Duen pintura toxikoa da?

- > Informazioa kutxan edo etiketan aurki dezakegu: izena, marka erregistratua, lantegiaren eta enpresa inportatzailearen helbidea, e.a.
- > Erabilpenerako jarraibideak argiak izan behar dira. Jostailua ziurra izan daiteke egoera batetan, baina ez bestean. Helduak ume txikien adinari egokitutako jostailuak aukeratu behar ditu.

- Era askotakoak, nahikoak, baina ez gehiegi.

Jostailu gehiegi izateak beraiekiko ilusioa galtzea dakar. Garrantzitsua da era askotako objektuak eskaintzea, esperientzia ezberdinak ahalbidetuko dituztenak: mugimendua, fantasiaren adierazpena, eraikuntza, komunikazioa... Jostailua ona dela estimulatu dituen jolas orduen arabera baloratuko da. Heldu eta umearen arteko elkarrekintzan esanguratsuak diren jostailuak eskaintzea garrantzi handia du.

ADINA	UMEEN EZAUGARRI SENTZOMOTOREAK	JOSTAILUAK
0-6 hilabete	Zentzuak esnatzen	Txintxirrinak, tapeteak, sehaskarako mugikorak, gomazko panpinak, soinudun gauzak, haginka egitekoak, kolore askotakoak, ukimena lantzekoak.
6-12 hilabete	Ahulezia berriak: mugimenduaren kontrola, ahots eta hitz batzuen ezagutza, objektuen azterketa, bilaketa, oratzea eta arrastatzea, beraien kabuz esertzen dira	Panpina bigunak, testura ezberdinetako objektuak, miaketa7manipulaziorako jostailuak, mugikorak, jira-biraka doazenak, soinudunak, kolore askotakoak, ukimena lantzekoak, uretakoak, oinez hastekoak, balanzinak.
12-18 hilabete	Oinez eta salto egiten dakite, hizkuntzaren hastapena, jaurti eta jaso, lehenengo lagun harremanak	Ohil ezberdinetako panpinak, kolore eta ehun ugazko jostailuak, kuboak eta eraikuntza jostailuak, pedalik gabeko 3 edo 4 gurpildun bizikletak.
18-24 hilabete	Oreka, hizkuntza, ingurunearekin harremana, lagunekin sozializazioa, lehenengo jolas sinbolikoak	Mugitzeko jostailuak, autoak, trizikloak, adierazpena lantzekoak (arbela, margoak eta musika duten jostailuak), panpinak, animaliak.
2-3 urte	Korrika, salto, arriskuaren pertzepzioa, ahuleziaren garapena, jakin-mina, imitazioa.	Trizikloak, autoak, palak, ontziak, eraikuntza jostailuak, musika tresnak, plastilina, margoak, panpinak, jantziak, sehaskak, telefonoak.
3-5 urte	Jolas sinbolikoa, irudimena, esperimendatu, eratu, adierazpena, elkarbanatzea, lagunekin harremana, hitz egin eta galdetzen dute, ingurunearen ezagutza...	Imitatzeko edozer (mozorroak, ontzitxoak, tresnak, panpinak, panpinen etxeak, txotxongiloak), sortzekoak, puzzleak, hiztegi eta arau jolasak, mekanoak, arbela, magnetofonoak, ipuinak.
6-8 urte	Jakin-mina, irakurmena, adierazpen grafikoa eta interpretazioa (idazketa eta marrazketa), batuketak eta gehiketak, ikerketa, irudimena eta sormena, taldeko jolasak.	Soka, goma, baloiak, bizikletak, kirol ekipamenduak, patinak, puzzleak, kromoak, kometak, esku-lanak (josi...), trenak, auto-telegidatuak, mahai-jolasak (galdera-erantzunak, memoria, kartak...), esperimendatzeko (mikroskopioak...), kromoak.
9-11 urte	Planak egiten dituzte, norbeteak dira, irakurri eta telebista ikusten dute, kanpoan jolasten dute, taldeetako partaide izateko nahia, bildumak, ekintza konplexuak egiten dituzte.	Kirola egiteko gauzak (bizikletak, patinak, soka, goma), metalezko mekanoak, eraikuntza jostailu konplexuak, maketak, esku-lanak, estrategia eta hausnarketa lantzeko jostailuak, talde jolasak.
11> urte	Sortu, elkarlanean aritu, asmatu, ikertu, bildumak, lehiatu...	Esperimentu jolasak, mahai-jokoak, bizikletak, adierazpen plastikoa, baloiak, monopatinak, ordenagailu-jokoak

BERAZ...

JOSTAILU ON BATEN EZAUGARRIAK

Dibertigarria eta umearen interesa iraunarazten du
 Buru-argitasuna eragiten du, fantasia, irudimena eta sormena
 Bere garapen mailara egokitzen da
 Erabilpen aukera ezberdinak ditu
 Ez da toxikoa ezta arriskutsua ere
 Funtzionamendu arauak ditu
 Talde jolasa sustatzen du
 Errez konpontzen da
 Salneurria eskaintzen dituen baloreekiko proportzionala da
 Ez da sexista



Iturriak:

- Jostailuak eta jolasak (Gernika-Lumoko udala)
- Juguetes sexistas y/o bélicos (Colectivo Paideia)
- Jolasak eta Jostailuak (Bizkaiko Urtxintxa estola)

